

Erref.: FMR/Legelari aholkularia

DAVID LATXAGA UGARTEMENDIAK, BIZKAIKO GIZARTE URGAZPENERAKO FORU  
ERAKUNDEAREN GOBERNU BATZORDEKO IDAZKARIAK

HAU ZIURTATZEN DU:

2025eko abenduaren 3ko bilera arruntean (4/25 akta), Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Gobernu Batzordeak, besteak beste, honako erabaki hau onetsi zuen:

**11. Gaia.-** Erabakia, 2022ko ea 2025eko enplegu publikoaren eskaintzari dagozkion Zerbitzu Teknikoko Ofizilararen kategoriako hautaprobren deialdia onesteari buruzkoa

**Lehenengoa.-** Bat etorririk Gobernu Batzordearen 2022ko abenduaren 19ko erabakiaren bidez onetsitako Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen enplegu publikoaren eskaintzarekin, eta behin 2025eko abenduaren 3ko Gobernu Batzordeak onetsirik, hautaprobren deialdia egitea, eranskinetan zerrendatutako ZERBITZU TEKNIKOKO OFIZIALen plazak betetzeko.

**Bigarrena.-** Deialdi hori arautuko duten oinarri orokorrak eta espezifikokoak onestea. Erabaki honi erantsi zaizkio, jasota gera daitezen.

**Hirugarrena.-** Agindua ematea oinarriak argitara daitezen oso-osorik Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, laburturik Estatuko Aldizkari Ofizialean, eta GUFERen iragarki-taulan zein webgunean.

**Laugarrena.-** GUFeko gerentea gaitzea deialdi hau izapidetzeko beharrezkoak diren ebazpenak eman ditzan.”

Eta hala jasota gera dadin, erabakitakoa betetzeko, eta bileraren akta onartzeak aldaketak eragin ditzakeela kontuan hartuta, ziurtagiri hau egin dut.

Sin./Fdo.: DAVID LATXAGA UGARTEMENDIA - 2025-12-10  
GUFE-REN GOBERNU BATZORDEKO IDAZKARIA  
SECRETARIO DE LA JUNTA DE GOBIERNO DEL IFAS

